

COVID-19 KORONABIRUSAK ERAGIN DUEN KRISIAREN EGOERA KUDEATZE ALDERA, ALONSOTEGIKO UDALERRIAN MERKATARITZA- ETA OSTALARITZA-JARDUERA SUSPERTZEKO ETA AUTONOMOENTZAKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO OINARRIAK.

1.- OINARRIEN XEDEA

COVID-19 koronabirusaren ondorioz alarma-egoera aitortu zen eta horrek krisi ekonomikoa nahiz ondoreak ekarri ditu. Ildo horri eutsiz, Alonsotegiko udalerrian jarduera ekonomikoa bultzatzeko berehala neurriak hartu dira.

Helburu horiek lortzeko, ohiz kanpoko laguntzen deialdia zehaztu da eta 50.000 euroko aurrekontuz zuzkituta dago.

Oinarri hauen xedea da COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduek jasan ditzaketen kalte ekonomikoaren eragina murrizteko laguntzen esleipena arautzea, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako zirkulazio askearen mugetatik eratorritako aldi baterako itxieraren ondorioz, udalerrian egoitza fiskala duten autonomoen kasuan eta Alonsotegi udalerrian kokatutako establezimenduen kasuan.

Laguntzak hauek bateragarriak dira bestelako edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin. Horiek eskualdeko, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek eman ditzakete. Dena den, laguntzen zenbateko osoak ez ditu inoiz COVID-19 koronabirusak sortutako galera ekonomikoak gaindituko.

Jarduerak premia handia dute eta zuzenean alarma-egoerari nahiz bere ondoreei lotuak daude. Horregatik, 463/2020 Errege Dekretuak hirugarren xedapen osagarriaren 4. atalean xedatutakoa aplikatuz, prozedura honetan epeak ez dira etengo.

2.- ONURADUNAK

Honako pertsona hauek izan daitezke laguntzen onuradunak:

1. Edozein pertsona, forma juridikoa alde batera utzita, txikizkako saltoki edo ostalaritzaren titularra bada eta Alonsotegin jendearentzat irekitako establezimendua badu.
2. Langile autonomoak, banakako enpresaburuak, merkataritza eta ostalaritzaren sektoreekin zerikusia ez dutenak; egoitza fiskala udalerrian badute eta beren ardurapean 5 langile baino gutxiago badituzte.

Jarduerari dagokionez, bi baldintza hauetatik bat bete beharko da:

a) Beren jarduerari martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak xedatutakoak eragin dio eta establezimenduak itxi behar izan dituzte, baina nahitaez diru-sarrera gutxiagorekin gastu arruntei aurre egin behar izan diete.

b) Jarduerak fakturazioa gutxienez % 75 murriztu du dirulaguntza eskatzen den hilabetearen aurreko hilabetearen. Xede horrez, alarma-egoeraren adierazpena abiapuntutzat hartuta, aurreko sei hileko naturalean egindako batezbestekoari erreparatuko zaio. Hala eta guztiz ere, diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeko, pertsona fisiko edo juridikoak alta emanda 6 hilabete natural bete ez dituenean, balioztapena jarduera-aldia kontuan hartuta gauzatuko da.

Bi kasuetan hurrengo baldintza hauek bete beharko dira:

- Autonomoen kasuan, autonomo gisa afiliatua egotea eta alarma-egoera aitortu zenean (2020ko martxoaren 14a) alta indarrean izatea. Gainerako onuradunen kasuan, legez eratu eta dagozkion erregistroetan inskribatuak agertzea eta Gizarte Segurantzaren Erregimenean edo Mutualitatean alta emanak egotea 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera aitortu zenean.
- Jardueraren egoitza fiskala Alonsotegiko udalerrian azaltzea eta/edo ukitutako lan-zentroa bertan kokatua egotea.
- Ukitutako jardueran online, etxez etxe edo telefonoz negozioaren bolumena gehituz pertsona eskatzailearen fakturazioa ez handitu izana.
- Alonsotegiko Udalarekin zerga-obligazioak eta zergaren eremukoak ez direnak eguneratuak izatea.
- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzko Orokorrak, 13.2. eta 13.3. artikuluetan jasotzen dituen gorabeheratan murgilduta ez egotea eta, bereziki, Bizkaiko Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekin (GSDO) zerga-obligazioak eguneratuak izatea. Baldintza hau eskaera aurkezten den egunetik, bidezkoa bada, dirulaguntza ordaintzen denera arte mantenduko da.
- Ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, bakarrik erkidegoan norberaren kontura diharduen pertsona batek eskatu ahal izango ditu laguntzak.
- Pertsona fisikoak edo juridikoak deialdi honetan araututako laguntzen hartzaileak badira eta COVID-19 koronabirusa iritsi zenean alarma-egoera aitortzeagatik beren jarduera erabat eten bada, hilabeteke epean berriz hasi beharko dute jarduera, alarma-egoera amaitzen denetik edo agintaritza eskudunak berriz ere etendako jarduera irekitzea baimentzen duenetik.
- Kasu guztietan nahitaezkoa da hasi eta gutxienez jarduerarekin sei hilabetez jarraitzea. Nolanahi ere, alarma-egoera amaitutakoan edo agintaritza eskudunak etendako jarduera berriz garatzea baimentzean ekingo zaio.

3.- LAGUNTZAREN XEDE DIREN EKINTZAK

Laguntza hauen bitartez diruz lagun daitezkeen gastuak honako hauek izan daitezke, betiere alarma-egoerarekin bat sortu badira:

- ♦ Langile Autonomoen Erregimen Berezian norberaren kontura lanean aritzeagatik kotizazioa ordaintzearen inguruko kuotak edo, bidezkoa bada, nahitaezko Gizarte Segurantzza edo Mutualitateei dagozkienak. Gastua ez da laguntzaren xede izango beste administrazio publiko batzuek diruz lagundu dutenean.
- ♦ Autonomo edo mikro ETE-en kasuan, beren ardurapean langile bat edo gehiago badituzte, 2020ko martxoaren 14an atxikitako langileei enplegu-emaileak ordaindutako gastuak. Jarduera aldi baterako eten baino lehen ezinbesteko baldintza da lan-legedian araututako bermeak, obligazioak eta prozedurak betetzea.
- ♦ Negozio-lokalen errentamenduari buruzko gastuak, betiere familia-etxebizitzaren zatia ez bada eta lokalaren errentatzailearekin odolkidetasunaren edo afinitatearen 2. mailara arte ahaidetasun-harremanik ez badago ala errentari gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkidea ala partaidea ez bada.
- ♦ Hornidurak, makineria, instalazioak eta ekipoak mantentzeko gastuak, garatzen ari zen jarduerari zuzenean atxikitzen bazaizkio.
- ♦ Ekipamendu informatikoa nahiz teknologikoa eta teknologia berriekin zerikusia duen prestakuntza.
- ♦ Esklusiboki kontingentziaren egoera horri erantzute aldera, ekipoak, instalazioak eta pertsonak desinfektatzeko kanpoko laguntza aditua.
- ♦ Kanpoko aholkularitza edo laguntza aditua honako hauei guztiei lotuta: konektibitate-konponbideak garatu, definitu eta ezartzea, telelanean jardutea eta segurtasun- edo kontingentzia-planak, bateratzeko giza baliabideen planak, produkzio- nahiz logistika-kudeaketaren planak eta erreferentziazko egoerari berehalako erantzuna emateko bestelako planak ezartzea.
- ♦ Jardueraren ondorioz aseguru-primekin bat datozen gastuak.
- ♦ Jardueraren hornitzaileei ordainketa mugaeguneratuak.
- ♦ Jarduera garatzeagatik sortutako beste edozein gastu, deskribatutakoen antzeko izaera badu.

Gastuek hilabete hauetakoak izan beharko dute: martxoa (azken 15 egunak), apirila eta maiatza (lehen 15 egunak).

4. - LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ETA ZENBATEKOA

Deialdi honetarako guztizko zenbatekoa 50.000 eurokoa da eta 2020. urteko Udaleko aurrekontuaren kargura ordainduko da.

Laguntzak emateko prozedura norgehiagoka da. Laguntzak esleitzeko orduan, publizitate, berdintasun, lehia eta objektibotasunaren printzipioak kontuan hartuko dira.

Laguntzaren zenbatekoak COVID-19 koronabirusa kudeatzeko alarma-egoera aitortzearen ondorioz aldi baterako ixteak sortu dituen kalteen eragin ekonomikoa arintzea du helburu. Xede horrez, jardueraren gastuei aurre egiteko fakturazioa (diru-sarrerak) urria dela justifikatu beharko da.

Oinarri hauetan xedatutako baldintzak kontuan hartuta, laguntza horiek guztiak betetzen dituzten eskaerei emango zaie eta onetsitako eskaeren artean proportzionala izango da, establezimendu eskatzaile bakoitzeko gehienez 1.500 eurora iritsi arte. Proportzionaltasuna definitzeari begira, gastuei erantzuteko egiaztatutako diru-sarrerarik eza da.

Xede horretarako, dirulaguntzen eskatzaileen galerak (diru-sarrerak ken gastuak) batuko dira, eta eskaera bakoitzaren galera-ehunekoa aterako da, multzo osoari dagokionez. Ehuneko hori aplikatuko da zenbateko osoan (50.000 euro) diruz laguntzeko zenbatekoa kalkulatzeko, eskaerako 1.500 euroko mugarekin.

1.500,00 euroko muga gainditu ahalko da eskaera guztiei erantzun ondoren ez bada gastatu esleitutako 50.000 euroko kreditu osoa.

Udaleko teknikariek aurkeztutako eskaerak aztertu eta baloratuko dituzte, eta egokitzat jotzen dituzten jarduketak gauzatuko dituzte ofizioz aurkeztutako datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko; ondoren, datu horiei jarraikiz, balorazio-batzorde batek ebazpen-proposamena egingo du, eta Enplegua eta Tokiko Garapena Informazio Batzordeko kideek osatuko dute batzorde hori.

Baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerak ebaluatu eta irizpideekin bat ordenatu direnean, baita eskaerak aurkezteko oinarrietan adierazitako epea amaitzen denean ere, deialdiko kreditua banatzeari ekingo zaio eta proportzionalki egingo da onetsitako eskaeren artean.

5.- AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Eskatzailearen NAN/AIZ
- Laguntzaren eskabidea, interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatutakoa, I. eranskin modura azaltzen den ereduari jarraiki. Izan ere, hori eskuragarri dago udaletxean eta egoitza elektronikoan. Halaber, eskabideak erantzukizunpeko adierazpena izan behar du, behar bezala sinatuta.
- Eskaera ordezkariak eginez gero, ordezkartzaren baimena aurkeztu beharko du II. eranskineko ereduaren arabera. Hori ere eskura dago udaletxean, baita egoitza elektronikoan ere.
- Errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua, jarduera ekonomikoa, altaren eguna, egoitza fiskala eta, bidezkoa bada, jarduera garatzeko lokalaren egoitza fiskala adierazten dituenak.
Langile Autonomoen Erregistro Bereziko edo dagokion Mutua Profesionaleko altari buruzko ebazpena/ziurtagiria.
- Errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua (jarduera ekonomikoen ziurtagiria), jarduera ekonomiko nagusiari dagokionez, JEZren epigrafea, horren altaren eguna, egoitza fiskala eta, bidezkoa bada, jarduera garatzeko lokalaren egoitza fiskala adierazten dituenak.
- Bere ardurapean langileak izanez gero, Enpresaren Lan Biziari buruzko Txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak egindakoa. Horretan 2020ko martxoaren 31ko langileen kopurua azalduko da.

- Alarma-egoeraren ondorioz itxia egon den hilabeteko edo hilabeteetako diru-sarrera eta gastuen zerrenda, gastuen frogagiriekin batera: ordainagiriak, alokairuaren kontratua, etab.
- Alarma-egoeraren adierazpena abiapuntuzat hartuta, aurreko sei hileko naturalean egindako batez bestekoarekin alderatuz gero, dirulaguntza-eskaeraren hilabetearen aurreko hilabeteen fakturazioa gutxienez % 75 murriztu den kasuetan, murrizketa egiaztatu beharko da eta, xede horrez, 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera aitortu zenetik, aurreko 6 hilabeteetan eta dirulaguntzaren eskaera aurkeztu arte justifikatzeko kontabilitate-informazioa aurkeztuko da:
 - egindako eta jasotako fakturei buruzko erregistro-liburuaren kopia
 - edo diru-sarreraren eta gastuen eguneroko liburua
 - edo salmenta eta diru-sarreraren erregistroaren liburua
 - edo erosketaren eta gastuen liburua.

Pertsona fisikoak halaberrez jardueraren bolumena egiaztatzeko liburuak ez dituen izan behar, zuzenbidean onartua dagoen edozein froga-bitarteko erabili beharko du gutxienez % 75eko murrizketa frogatzeko.

Pertsona fisikoak diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeko 6 hilabete naturalean emanda ez dagoenean, jardueraren aldia kontuan hartuta balioetsiko da.

- Pertsona juridiko, sozietate zibil, ondasun-erkidego edo nortasun juridikorik gabeko bestelako erakunde ekonomikoaren kasuan, gainera, ondorengo hauek erantsiko dira:
 - Sozietate zibil, ondasunen erkidego edo nortasun juridikorik gabeko bestelako erakunde ekonomikoaren sorrera, behar bezala erregistratua.
 - Pertsona juridikoaren sorrera-ekritura eta estatutu eguneratuak, dagokion erregistroan inskribatuak.

6.- PERTSONA ETA ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Honako hauek dira betebeharrak:

- Enpresa-jarduerari eustea gutxienez 6 hilabetez, alarma-egoera amaitu ondoren jarduerari berriro ekiten diotenetik.
- Halaber, laguntzen onuradunek martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu zen egunean zuten batez besteko langile-kopurua mantendu beharko dute nahitaezko itxi edo jarduera murriztu zen epea amaitu eta gutxienez hurrengo sei hilabeteetan zehar, 1. ildoko laguntzen kasuan.
- Dirulaguntzei buruzko indarreko araudiak aurreikusitako finantza-egiaztapen eta -kontrolaren jarduketak gauzatzea.
- Laguntza eskuratzeko baldintzak faltsutu badira, jasotzea eragotziko luketen baldintzak isilpean gorde badira edo dirulaguntzen araudian aurreikusitako finantza-egiaztapen eta -kontrolaren jarduketei begira aurkaratzea, aitzakiak, oztopoak edo ezezkoak adierazi badira, jasotako funtsak itzuliko dira.
- Laguntzen onuradunek lankidetzan aritzeko betebeharra dute, baita Udalarik dagozkion kontrol-funtzioetan eskatutako frogak aurkezteko ere.

- Laguntza hauen onuradunek, laguntza-eskaera aurkeztuta, baimen espresa ematen diote Alonsotegiko Udalari beste administrazio eta enpresa publiko batzuei informazioa eskatu eta emateko, horien egiaztapen- eta kontrol-lanak egiteko xedearekin edozein fasetan.
- Laguntza hauen onuradunen erantzukizunak, arau-hausteak eta zigorrak oinarri hauen 11. atalean aipatutako dirulaguntza-araudi orokorrean daude araututa.

7.- LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA.

Laguntza hauen justifikazioa eta haien xedearen betearazpena egintzat joko dira oinarri hauetan eskatutako dokumentazio guztia aurkezten denean; beraz, behin laguntzaren esleipena ebatzen denean, onuradunarenganako ordainketa izapidetuko da, aurreko artikuluan pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrei begira aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Ordainketa banku-transferentziaren bidez egingo da eskatzaileak oinarri hauen I. ERANSKINEAN adierazitako kontura.

8.- JARRAIPENA, IKUSKARITZA ETA KONTROLA

Udalak egokitzen jotzen dituen jarduerak gauzatu ahal izango ditu oinarri hauetan jasotako betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko.

Pertsona onuradunek eskatutako informazio guztia aurkeztu beharko dute, hala badagokie.

9.- ESKAERAK AURKEZTEA ETA EPEA

Eskaerak, eskatutako dokumentazio eta informazioarekin batera, modu telematikoan aurkeztuko dira, gure egoitza elektronikoaren bidez. Esteka honetan topatu daiteke egoitza: <https://Alonsotegi.net/>

Egoitza elektronikoan CI@ve sistemaren bitartez identifikatuko da, zeinak pasahitz hitzartuetan (CI@ve PIN eta CI@ve pertsonala) eta ziurtagiri elektronikoetan (NAN-e barne) oinarritutako identifikazio-sistemen erabilera aurreikusten duen.

Posta arrunt ziurtatuaren bidez aurkeztu ahal izango dira, baita aurrez aurre ere, Udalaren bulego nagusietan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 13:30era.

Laguntza-eskaera ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, ez da onartuko.

Eskaerak oinarri hauetan ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, interesdunari gehienez 5 egun baliaduneko epe luzaezinean hori zuzentzeko eskatuko zaio. Halaber, adieraziko zaio hori egiten ez badu eskaera bertan behera geldituko dela.

Eskaera bakarra aurkeztu ahalko da establezimenduko edo norberaren kontuko langileko. Eskaera osorik bete beharko da. Aurkeztu gabeko datuak, osorik edo partzialki, ez dira kontuan hartuko baloraziorako.

Eskaerak aurkezteko epea **10 egun baliodunekoa** izango da, oinarri arautzaileak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

10.- INFORMAZIO-BETEBEHARRA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAN

Datuak babesteko indarreko araudiarekin bat, jakinarazten da Alonsotegiko Udalak tratatu egingo dituela laguntzen eskaera-prozesu honetan parte hartzen duten edo, hala badagokio, esleipendun bihurtzen diren eskatzaileek emandako datu pertsonalak. Datu horiek laguntzen esleipen-prozedura kudeatzeko eta oinarri hauetan adierazitako betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko jaso eta tratatzen dira, sektore publikoko kontratazio-araudiarekin (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) eta bestelako administrazio-legeekin bat etorritz.

Datu horien bilketa eta tratamendua legala da sektore publikoko araudiaren betebehar legalak betetzeko beharrian oinarrituta, eta, hala badagokio, laguntza hauen esleipena kudeatzeko, esleipendun izanez gero. Datuak modu konfidentzian tratatuko dira, eta soilik Kontuen Epaitegiari eta gaian eskumenak dituzten administrazio gainerako organoei jakinaraziko zaizkie, baita bestelako erakunde eta hirugarrenen ere, betiere datuen babesari buruzko indarreko legedian ezarritako baldintzak betetzen badira. Datuak sektore publikoaren arautan eta aplikagarriak izan daitezkeen gainerako arautan ezarritako epeetan zehar gordeko dira.

Datuen titularrek sarbide-, zuzenketa-, ezabatze- eta aurkaratze-eskubideak erabili ahalko dituzte, Alonsotegiko Udalari zuzendutako jakinarazpenaren bidez, honako hau ipinita gaian: Erref. Datuen babesa. Halaber, aplikagarria denean, eragindako pertsonen eramangarritasun- eta mugatze-eskubideak ere erabili ahalko dituzte, aurretik ezarritako premisei jarraikiz.

Egokitzat jotzen duenean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziarengana (AEPD) jo ahalko du.

Informazio gehiago eskuratu dezake honako helbide elektroniko honetan: alonsotegi@alonsotegi.net

11.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi hau laguntzen xedeari begira aplikagarriak diren nazioko eta erkidegoko arauekin bat etorritz interpretatu eta aplikatuko da, eta, zehazki, hauekin:

- Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudia, Minimis laguntzen ituna 87. eta 88. artikuluetan aplikatzeari buruzkoa.
- Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EB Gomendioa (DOL 124, 2003-05-20)
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Toki Administrazioa arautzen duen Estatuko Oinarrizko Legedia (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 72. artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen 40., 189.2 eta 214.2 artikulua, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bategina)
- Alonsotegiko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Nagusia.

Dirulaguntzak esleitzeko erabakiaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da hilabete bateko epean, Lurralde Ordezkaritza honen aurrean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean dagokion jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

